



## Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua  
Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio

### ERABILERA LAGATZEKO KONTRATUA

Donostian, 2014ko irailaren 26an

#### ELKARTU DIRA

IÑAKI ERRAZKIN VITORIA jauna, Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko foru diputatua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean eta ordezkartzan, Diputatuen Kontseiluaren 2014ko ekainaren 24ko Erabakiaz agiri hau sinatzeko baimendua.

JOKIN GARMENDIA ASURABARRENA jauna, Olaberriko udalerriko alkate gisa

Bi aldeek erabilpena dohainik lagatzeko kontratua sinatzeko ahalmen nahikoa aitortzen diote elkarri, eta ondoko aurrekariak hartzen dituzte kontuan,

#### AURREKARIAK

I.- Gipuzkoako Foru Aldundia Olaberriko lurzati baten jabe da, N-I errepidearen paraleloan dagoena, Ihurreko zuzengune gisa ezagutzen denaren alboan.

II.- Egun, lurzatiaren ekialdeko zerrendan, N-I errepidearen paraleloan, Foru Aldundiak 2002an eraikitako Iñausti bidea dago; lurzatiaren gainerakoa ez da ezertarako erabiltzen. Horiek horrela, Olaberriko Udalak Foru Aldundiari eskatu dio ezen laga diezaiola haren erabilera, lurzatiaren alboan dagoen Iñausti poligonora (33. area) joaten diren ibilgailuentzat aparkaleku bat egiteko; modu horretan, konpondu egingo litzake poligonok daukan aparkaleku arazoa.

III.- Eskaera aztertuta, eta kontuan hartuta lurzati N-I errepidearen alboan dagoela, erabaki da ezen bideen herri jabari bezala mantendu behar dela 10 metroko zerrenda bat, N-I errepidearen galtzadaren ertzeko lerroitik neurtuta, Iñaustiko bideak zati hori hartzen baitu.

### CONTRATO DE CESIÓN DE USO

En San Sebastián, a 26 de septiembre de 2014

#### REUNIDOS

Don IÑAKI ERRAZKIN VITORIA Diputado Foral del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, actúa en nombre y representación de la Diputación Foral de Gipuzkoa, facultado para la formalización del presente documento en virtud de Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 24 de junio de 2014.

Don JOKIN GARMENDIA ASURABARRENA actuando en su condición de Alcalde del Municipio de Olaberria.

Ambas partes intervinientes se reconocen capacidad legal bastante para otorgar el presente contrato de cesión gratuita de uso, que para mayor inteligencia inician con los siguientes,

#### ANTECEDENTES

I.- La Diputación Foral de Gipuzkoa es propietaria de una parcela de terreno sita en Olaberria, que discurre en paralelo a la carretera N-I, en la conocida como recta de Ihurre.

II.- Actualmente, en la franja situada al este de la parcela, paralela a la N-I, existe el denominado vial de Iñausti, construido por Diputación en el año 2002 y el resto de la parcela se encuentra sin uso. En este contexto, el Ayuntamiento de Olaberria ha solicitado a la Diputación Foral que le ceda su uso, con la finalidad de convertirla en aparcamiento para los vehículos del polígono Iñausti (Area 33) colindante con la parcela, y de este modo solucionar el problema de aparcamiento existente en dicho polígono.

III.- Analizada la solicitud, y dado que la parcela es adyacente a la N-I, se ha determinado que debe mantenerse como dominio público viario una franja de 10 metros a contar desde la línea de borde de calzada de la N-I, sobre la que a su vez, discurre el vial de Iñausti.



## Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua  
Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio

Hortaz, lurzatiak, zeinaren erabilera Udalari laga daitekeen ondare ondasun gisa, 850 m<sup>2</sup> inguru neurtzen du. Mugak: Iparraldean, Iturralde 34. areako lurrak; hegoaldean, Iñauti 33. area; ekialdean, Iñautistiko bidea doan N-I errepideko herri jabariko zerrenda eta mendebaldean, Oria ibaia.

**IV.-** Hori guztia kontua hartuta, Diputatuen Kontseiluak 2014ko ekainaren 24ko bileran erabaki du ezen aipatutako lurzatiaren erabilera doan lagatzea 10 urterako Olaberriko Udalari, aparkaleku gisa erabiltzeko.

Horiek horrela, bi aldeek agiri honetan jasotzen den erabilera doan lagatzeko kontratua sinatzen dute, klausula hauei jarraituz

### KLAUSULAK

#### Lehena.- Lagapenaren xedea

1.1. Kontratuaren xedea da deskripzio hau duen lurzatiaren erabilera lagatzea:

Olaberriko Hiri Antolaketako Arauetako Baskula 39. arean dagoen eta 850 m<sup>2</sup> inguru neurtzen duen lurzati. Mugak: Iparraldean, Iturralde 34. areako lurrak; hegoaldean, Iñauti 33. area; ekialdean, Iñautistiko bidea doan N-I errepideko herri jabariko zerrenda eta mendebaldean, Oria ibaia.

Agiri honekin batera doa lagatzen den lurzatiaren plano.

1.2. Lagapena lurzatiaren erabilerrara mugatzen da. Haren jabetza eskubideak, beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku jarraitzen du.

#### Bigarrena.- Lagapen-hartzailea eta erabilera.

2.1. Lagapena Olaberriko Udalaren alde egiten da.

2.2. Lagapen-hartzaileak aparkaleku gisa erabiliko du lagatako higiezina.

2.3. Lagapen-hartzaileak ezin izango du lagatako lurzati laga, ez errentan eman, ez beste inolako xedatze egintzarik egin, Gipuzkoako Foru

Por ello, la parcela de terreno cuyo uso se puede ceder al ayuntamiento tiene una superficie aproximada de 850 m<sup>2</sup>. Sus linderos son: Norte, con terrenos del Area 34, Iturralde; Sur, con el Area 33, Iñauti; Este, con franja de dominio público de la N-I por la que discurre el vial de Iñauti, y Oeste, con el río Oria.

**IV.-** A tenor de ello, el Consejo de Gobierno Foral, en sesión celebrada el 24 de junio de 2014, ha acordado la cesión de uso gratuito de la parcela señalada a favor del Ayuntamiento de Olaberria, por un plazo de 10 años, para que sea destinada a aparcamiento.

En virtud de lo expuesto, ambas partes otorgan el correspondiente contrato de cesión gratuita de uso contenido en el presente documento y que someten a las siguientes

### CLAUSULAS

#### Primera.- Objeto de la cesión

1.1. Es objeto de este contrato, la cesión de uso de la parcela que se describe a continuación:

Parcela de terreno situada en el Area 39, Baskula, de las Normas Subsidiarias de Olaberria, con una superficie aproximada de 850 m<sup>2</sup>, cuyos linderos son: Norte, con terrenos del Area 34, Iturralde; Sur, con el Area 33, Iñauti; Este, con franja de dominio público de la N-I por la que discurre el vial de Iñauti; y Oeste, con el río Oria.

Se adjunta al presente documento plano de la parcela objeto de cesión.

1.2. La cesión se limita al uso de la parcela. El derecho de propiedad sobre la misma se mantiene, por tanto, en la Diputación Foral de Gipuzkoa.

#### Segunda.- Cesionario y destino.

2.1. La cesión se otorga en favor del Ayuntamiento de Olaberria.

2.2. La entidad cesionaria utilizará el inmueble cedido con destino a aparcamiento.

2.3. La entidad cesionaria no podrá ceder, arrendar, ni realizar ningún acto dispositivo con la parcela objeto de cesión, sin el consentimiento



Aldundiaren berariazko eta idatzizko baimenik gabe.

#### **Hirugarrena.- Epea.**

Lagapena hamar (10) urterako egiten da, kontratu hau sinatzen denetik kontaktzen hasita, zazpigarren klausulan ezarritakoa eragotzi gabe.

#### **Laugarrena.- Betebehar ekonomikoak.**

4.1. Erabileraren lagapena doakoa da eta, hortaz, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du zuzenean eta bere onurarako batere dirurik jasoko.

4.2. Dena den, lagapen-hartzailearen kontura izango dira gastu hauek:

- Lagatako lurzatiaren erabileratik sortutako gastu pribatu guztiak.
- Lagatako lurzatiari zuzenean lotuta sortu edota likidatuko diren zerga guztien zenbateko osoa.

#### **Bosgarrena.- Mantentzea, zaintzea eta hobetzea.**

5.1. Lagapen-hartzailearen kargura egingo dira aurreikusitako xedea betetzearren lurzattia urbanizatzeko eta zaintzeko lanak.

5.2. Lagatako ondasunean edozein obra mota egiteko, Foru Aldundiaren idatzizko onarpena beharko da, eta hark lanak aztertzeo eskubidea gordetzen du beretzat.

5.3. Dena den, egiten diren lanak jabetzaren onurarako geratuko dira, eta ezingo da inolako kalte-ordainik eskatu.

#### **Seigarrena.- Erantzukizuna**

6.1. Lagapen-hartzailearen betebeharra izango da utzitako lurzattia aipatu den moduan erabiltzea, behar bezalako arduraz eta arretaz.

expreso y escrito de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

#### **Tercera.- Plazo.**

El plazo de cesión será de diez (10) años a partir de la fecha de la firma del presente contrato, sin perjuicio de lo establecido en la cláusula séptima.

#### **Cuarta.- Obligaciones económicas.**

4.1. La presente cesión de uso se constituye con carácter gratuito y, en consecuencia, la Diputación Foral de Gipuzkoa no percibirá directamente y en su beneficio cantidad alguna.

4.2. No obstante, serán de cuenta de la entidad cesionaria, desde la firma del presente contrato:

- Todos los gastos privativos derivados del uso de la parcela de terreno objeto de cesión.
- La totalidad del importe de los tributos de cualquier orden que se devenguen y/o liquiden y que tengan relación directa con la parcela que se cede.

#### **Quinta.- Mantenimiento, conservación, y mejora.**

5.1. Serán por cuenta de la entidad cesionaria las obras de urbanización y conservación necesarias para destinar la parcela al fin previsto.

5.2. Para la realización de cualquier tipo de obras en el bien cedido será necesaria la aprobación escrita de la Diputación Foral, reservándose esta última el derecho de revisión de las mismas.

5.3. En todo caso, las obras realizadas quedarán en beneficio de la propiedad sin derecho a indemnización alguna.

#### **Sexta.- Responsabilidad.**

6.1. Será obligación de la entidad cesionaria utilizar la parcela para el uso descrito con la debida diligencia y cuidado.



6.2. Lagatako lurzatiaren erabileratik nahiz han egiten den jardueratik, zuzenean edo zeharka, sor daitezkeen kalteak, galerak eta erantzukizunak lagapen-hartzailearen kontura eta kargura izango dira.

6.3. Lagapen-hartzaileak aseguru poliza bat kontratatuko du kaudimena duen konpainia batekin, lagatako lurzatian gauzatzen diren jardueretatik eratorritako erantzukizun zibila bere gain hartzen duena.

#### **Zazpigarrena.- Kontratua iraungitzeko arrazoiak**

7.1. Kontratua iraungitza eta amaitutzat joko da, ezarritako iraupen epea amaitutakoan.

7.2. Kontratu hau arrazoi hauengatik ere iraungi daiteke:

- Lagatako lurzattia bigarren klausulan adierazitakoa ez den beste xede baterako erabiltzen bada edo kontratu honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzen ez badira.
- Elkarren artean adostuta.
- Konbentzionalki edo legalki aurreikusitako gainerakoengatik.

7.3. Gipuzkoako Foru Aldundiak epea amaitu baino lehen amaitutzat jo dezake lagapena, herri erabilerako edo zerbitzu publikoko arrazoiak agertuz gero.

7.4. Foru Aldundiak ez dio inoiz lagapen-hartzaileari ezain ordainik emango, lagapenaren iraupen normala aurreikusiz egin dituen gastuengatik.

#### **Zortzigarrena.- Uztea**

8.1. Behin kontratua iraungita, iraupen epea amaitu delako edo ebatzi delako, lagapen-hartzaileak hutsik eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku utziko du lagatako lurzattia, aipatutako epea amaitzen denetik hiru hilabeteren barruan.

8.2. Lagapen-hartzaileak ez badu laga zaiona bere kabuz uzten, Foru Aldundiak hura utzaraztea erabaki eta erabaki hori betearazi dezake.

6.2. Todos los daños, perjuicios y responsabilidades que pudieran derivarse, directa o indirectamente, tanto de la utilización de la parcela de terreno objeto de cesión, como de la actividad que en la misma se desarrolle, serán de cuenta y cargo de la entidad cesionaria.

6.3. La entidad cesionaria suscribirá una póliza de seguro que cubra la responsabilidad civil derivada de las actividades desarrolladas en la parcela, con una compañía de reconocida solvencia.

#### **Séptima.- Causas de extinción del contrato.**

7.1. El contrato se extinguirá y quedará concluido, una vez transcurrido el período de duración establecido.

7.2. El presente contrato podrá resolverse, además, por las siguientes causas:

- Por el uso de la parcela cedida para una finalidad distinta a la prevenida en la cláusula segunda o el incumplimiento del resto de condiciones impuestas en el presente contrato.
- Por mutuo acuerdo.
- Las demás convencional o legalmente previstas.

7.3. La Diputación Foral de Gipuzkoa podrá resolver la cesión antes del vencimiento del plazo, si lo justificasen circunstancias sobrevenidas de uso o servicio público.

7.4. En ningún caso la Diputación Foral de Gipuzkoa resarcirá de los daños causados a la entidad cesionaria por los gastos realizados en previsión de la duración normal de la cesión.

#### **Octava.- Desalojo.**

8.1. Una vez producida la extinción del contrato, bien por haber transcurrido el plazo estipulado o por haberse resuelto, la entidad cesionaria deberá dejar libre y a disposición de la Diputación Foral de Gipuzkoa la parcela cedida, en el transcurso de los tres meses siguientes.

8.2. La Diputación Foral podrá acordar y ejecutar el desalojo si la entidad cesionaria no lo hiciera voluntariamente.



## Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua  
Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio

### Bederatzigarrena.- Jakinarazpenak.

Jakinarazpenak eta zitazioak egiteko Foru Aldundiaren helbidea hau izango da: Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko bulegoak (edo etorkizunean horren eginkizunak bere gain hartzen dituen Departamentua), Donostiako Julio Caro Baroja plaza 2; eta lagapen-hartzailearena, berriz, San Joan plaza 1, Olaberria.

Helbide horietara eginiko jakinarazpenak ontzat joko dira, baldin aldeetako batek beste aldeari, bide frogagarria erabilita, helbidea aldatu duela adierazten badio izan ezik.

### Hamargarrena.- Jurisdikzioa.

Kontratu honetatik sor daitezkeen gorabeherak edo eztabaidak, aldeak, beren foruei berariaz uko eginda, Donostiako epaitegien mende bakarrik jartzen dira, ez beste inoren mende.

Eta ados direla adierazteko, bi aldeek agiri honen bi ale sinatzen dituzte, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik /  
Por la Diputación Foral de Gipuzkoa



Sin./ Fdo.: Inaki Errazkin Vitoria

### Novena.- Notificaciones.

A efectos de notificaciones y citaciones se conviene como domicilio de la Diputación Foral, las oficinas del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, o departamento que en un futuro asuma sus funciones, sitas en la Plaza Julio Caro Baroja nº 2 de San Sebastián, y el de la entidad cesionaria, San Juan Plaza nº 1 de Olaberria.

Todas las notificaciones que se efectúen en los domicilios antes indicados se entenderán por bien hechas, salvo que, por conducto fehaciente, cualquiera de las partes hubiera indicado a la otra su cambio de domicilio a estos efectos.

### Décima.- Jurisdicción.

Para todas las cuestiones o controversias derivadas del presente contrato, las partes, con renuncia expresa a sus propios fueros, se someten única y exclusivamente a los Juzgados y Tribunales de San Sebastián.


Y en prueba de conformidad firman ambas partes el presente documento por duplicado, en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

Olaberriko Udaleren aldetik /  
Por el Ayuntamiento de Olaberria

Sin./ Fdo.: Jokin Garmendia Asurabarrena



THE UNIVERSITY OF CHICAGO  
LIBRARY  
540 EAST 57TH STREET  
CHICAGO, ILL. 60637  
TEL: 773-936-3000  
WWW.CHICAGO.EDU



LINEA BLANCA DE BORDE DE CALZADA

10,00 m

Límite de ocupación

E = 1:500

